

ARIZMENDI IKASTOLA KIROL ELKARTEKO ARAUTEGIA

Eskubideak:

- Ikastolaren egitasmo pedagogikoarekin bat egiten duten baloreetan formatu eta ikastea.
- Ekintza dibertigarria eta osasungarria izatea.
- Ekintzaren garapena hobetzeko proposamenak egitea.
- Monitore, entrenatzaile, koordinatzaile, ordezkari eta taldekideak errespetatzea.

Betebeharrak:

- Ordutegia eta arautegia errespetatzea.
- Instalazioak eta materiala behar den moduan zaintzea.
- Taldekideak eta monitorea errespetatzea.

Kuoten politika:

- Urtean zehar bi kuota pasatuko dira
1. kuota: kirol arropa + federazio-fitxa.
 2. kuota: entrenatzaile kuota

Arautegia orokorra:

- Izen-ematea epez kanpo egiteak ezin onartu izatea ekar dezake.
- Epez kanpo izena ematea onartzen bada, izen-emate garaian zehaztutako kuota osoa ordaindu beharko da. Urtarrilaren 10etik aurrera onartzen diren izen-emate berri guztiengatik entrenatzaile kuotaren %65a ordaindu beharko da.
- Ikastolako bazkide ez direnek 30€ gehiago ordaindu beharko dute.
- Behin ekintza hasiz gero eta taldearekin konpromisoa hartu ondoren, ezingo da taldea utzi. Norbaitek taldea uzten badu ez zaio kuotarik itzuliko eta falta direnak kobratuko zaizkio. Salbuespen egoera:
 - Lesio/gaixotasun luzeak
 - Arazo larriak
- Astean zehar bi entrenamendu saio egingo dira. Entrenamendu saioetan parte-hartzea derrigorrezkoa izango da. Azterketa garaiak salbuespen bezala hartuko dira.

- Partiduetara joatea derrigorrezko baldintza izango da; salbuespentzat hartuko dira senitarteko ospakizunak (ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...), ikastolak antolatutako ekitaldiak ...

30 egun lehenago kirol elkarteko arduradunei abisua pasa beharko zaie.

- Lesio edo gaixotasun arazoengatik asistentzia falta onartua izango da.
- Jokalari guztiek Gabonetako loteria saldu beharko dute; bi anaia-arreba edo gehiagoko kasuetan sorta bakarra.
- Partiduetara joateko aurrez zehaztutako egutegi bat egingo da eta gurasoak txandakatuz joango dira. Gurasoak ezin badu dagokion partidura joan beste guraso bati deitu beharko dio eta egoera konpondu.
- Joko zelaian edo taldearen ardurapean dagoen momentuan, kirolariak izan ditzakeen errespetu falta eta jokaera desegokien gainean, elkarreak erabakiko du zein izango den ondorioa, taldetik kaleratuta izatea barne.
- Taldetik kaleratuta izan den kirolariak urte osoko kuota ordaindu beharko du.
- Entrenamendu saioetan eta partiduetan galdutako kirol materiala talde osoak ordainduko du.

DENBORALDI HASIERAN GURASO BILERA EGINGO DA. ASISTENTZIA DERRIGORREZKOA DA PUNTU GUZTIAK ONGI ARGITZEKO. BILERAN URTEKO NONDIK NORAKOAK ZEHAZTUKO DIRA